

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Trikitiari nortasuna emateko bide berriak

Orioko talde ezagunak diskoetxez aldatuta eman du etapa berrira urratsa, Internet eta saketako telefonoen garaira. Taldearen izaerari eutsita trikitiari beste kolore batzuk eman dizkio. Hala, hanka bat plazatako erromeriatan sendo jarrita badu ere, beste hanka harago eraman du bestelako usain, kolore eta erritmoak dastatu eta zabaltzeko. Tradizioei lotutako arin-arin eta fandangoez gain, doinu desberdinak batu dituzte: balada folkyak (*Beldurra*), Europa ekialdeko ijitoen oihartzuna (*Ijitua*), erritmo karibearrak (*Ofi-afi*), pop goxoa eta country doinuak, besteak beste. Hitzei dagokionez, oso kritiko dira oriotarrak eta herri honentzat konponbidea bilatzeko autokritika egiten dute, baita erantzule nagusiei, politikariei, ekimenak gauzatzeko eskatu ere, hausnarketa eta ironia zorrotza erabilia.



Gozteri.com
Gozategi

BABELMUSIK

Iraupena: 47'36"
13,45 euro

GOZATEGI

«Oso harro gaude plaza taldea izateagatik»

Gozteri.com-ek adierazten al du trikitia eta Gozategi tendentzia berrietara erabat egokitu direla?

Ahalegintzen gara. Aurreko diskoa [*Egunon*, Elkar 2000]kaleratu genuenean gezurra zirudien gaur egun Internet eta SMSak hain presente egongo zirenik.

Kosta zaio trikitiari gaur egungo esparruan lekua egitea. Zer du alde?

Trikitia beti egongo da hor. Guk aurreko diskoa kaleratu genuenean ez zegoen lehen planoan. Baina orduetik asko irabazi du. 1995eko *boom*-etik bide luzea egin du, eta taldeek nortasun handia dute. Alde dauka gurea dela, euskal kulturaren zati bat.

"Mahaiek aulkirik ez duten herrikoa naiz". Nondik ekarri konponbiderako falta diren aulkiak?

Borondate apur bat jarri behar dugu guztiok, eta egunero zerbait egin, ez bakarrik une puntaletan. Horrez gain, oso garrantzitsua da batzen gaituen guztiari erreparatzea, eta ez gure artean ditugun desberdintasun txikiei. Badirudi horrela jarraitzeko interes handia dutela batzuk.

Zuentzako garrantzitsua da musika bidegabekeriak salatze baliatzea?

Guk hala egiten dugu. Zer nota sartu baino, buelta gehiago ematen diogu zer esan eta zelan esan behar dugunari. Musikariok gehiago "busti" behar

ko ginatke. Musikariok jendeari komunikatzeko erantzukizuna eta zortea daukagu.

Zuen burua plaza taldeetatik kanpo ikusten duzue, rock taldeen artean, edo bi lekuetan?

Biak egiten ditugu, eta bie garrantzia bera ematen diegu. Hala ere, oso harro gaude plaza taldea ere izateagatik.

Gustura diskoetxe berriarekin eta Haritz Harreguy soinu teknikariarekin?

Orain arteko disko guztiak Elkarrekin egin ditugu, baina Babelmusik-ekin oso gustura gaude. Haritz Harreguyri dagokionez gure beste lan batzuetan ere esku hartu du, eta oraingoan bera izango da ardura-duna. Lagun ona dugu eta konfiantza ematen digu berarekin lan egiteak; hori da garrantzitsua.

